

## **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETH)**

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta (ETH) hileroko koiuntura-eragiketa da, eta helburutzat du EAEko establezimendu turistikoetan izan den mugimenduaren (sarrerak eta igarotako gauen kopurua) bilakaera neurtzea.

Gaia zein den? Hotelak eta pentsioak, nekazaritza-turismoa eta landetxeak, eta turismo-apartamentuak. Zentsu-inkesta da, alegia Euskal AEko turismo-establezimendu guztiei buruzko informazioa jasotzen da, tratatzeko era ez bada ere denentzat bera.

Establezimendu horien estratifikazioa hiru irizpide kontuan harturik ezartzen dira:

- Mota:
  - H Hotel-establezimenduak: hotelak eta ostatuak
    - Kategoria: Hotelen azpitaldea, bere aldetik, bitan banatuta dago:
      - 1. multzoan 3, 4 eta 5 izarreko establezimenduak daude
      - 2. multzoan, izar 1 eta 2ko hotelak eta ostatuak daude
  - A Landetxeak: nekazaritza-turismoko establezimenduak eta landetxeak
- Kokapena: Zehaztu diren bi mota horietan (H, A eta P), lurralde historikoak bereizteaz gainera, sektorean adierazgarriak diren eremu geografikoak ere bereizten dira.

Galdesorta mota biren bitartez biltzen da informazioa, bi bertsiotan (paperean eta euskarri elektronikoan, hemen: [www.eustat.es/etr](http://www.eustat.es/etr)):

- Hilean behingoa: establezimendu horietan erreferentziako hilabeteko egun guztietan erregistratu diren mugimenduak jasotzen dira. 3 izarreko eta gehiagoko hotel guztietarako eta turismo-apartamentuetarako da
- Astekoa: erreferentziako hileko 7 egunetan –zoriz aukeratutakoak- izan diren mugimenduak jasotzen dira. izar 1 eta 2ko hotel eta ostatuak sartzen dira hemen, baita nekazaritza-turismoko establezimenduak eta landetxeak ere.

Aipatu motetako establezimendu guztiek (hotelek, landetxeek eta turismo-apartamentuek) erabiltzen dute direktorioa. Eguneratzean, Euskal AEko Enpresa eta Establezimenduen Erregistroa hartzen da erreferentzia gisa.

Hotel eta landetxeei buruzko inkestari dagokionez, denboran oinarritutako lagin bat erabili denez inkesta egiteko, hau da, hileko 7 egun besterik ez dugunez aintzat hartu establezimendu batzuetan, datuak, gero, estrapolatu egin behar dira.

Metodologia berriak informazio-emaileen arabera egozpen-sistema ezartzen du, distantziak oinarritzat hartzen dituena; eta horrela, hileko egun guztietako eta establezimendu guztietako informazioa duen taula egin daiteke.

Turismo-apartamentuetarako, zehazki (P), turismo-apartamentuak ustiatzen dituzten enpresak hartu ditugu inkesta egiteko unitate modura (apartamentuaren erabilera laga ohi duten pertsona fisikoak edo juridikoak, berdin du jabeak diren edo ez). Datuok goititzeko metodo bat darabilgu, gure ezagueraren arabera zenbat jenderentzako leku duten arabera.

Enplegurako, berriz, antzeko establezimenduetan izaten diren gorabeherak hartu ditugu oinarri, kontuan hartuz dena delako establezimenduan aurreko hilean eta aurreko urtean erregistraturik izan den enplegu-maila.

Jasotako datuak ezarri den estratifikazioaren arabera (eremu geografikoak) argitaratzen dira, baina honakoak ere zehazten dira: bidaiarien sarrerak eta haiek igarotako gauen kopurua, jatorria eta norakoa kontuan hartuta; Euskal AEko hotel-establezimenduen kopurua; eskainitako plazak; okupazio-mailak; batez besteko egonaldia, edo sektorean lan egiten duten pertsonen kopurua edo hotel sektoreko errentagarritasun adierazleak, esaterako eguneko batez besteko tarifa (ADR) edo gela eskuragarriko diru-sarrerak (REVPAR).

Estatistika-eragiketa hau 1992tik egiten du Eustatek. 2013ko aldaketa metodologikoa eremu geografiko banatze berria ekarri du, zeinak ez duen ahalbidetzen zenbait serie estekatzea; halere, serie nagusiak, Eustatek estekatu ditu, Euskal AErako eta lurraldeen arabera.